



Datuak Babesteko Politika eta Tratamendu Jardueren
Erregistroa foru-erakundearen webgunean argitaratzeko

Datuak Babesteko Politika eta Tratamendu Jardueren Erregistroa

Datuak babesteko politika honen bidez ematen den informazio guztia aplikagarri zaio gure zerbitzuak kontaktatzen edo erabiltzen dituzten pertsonen datu pertsonalez **Azpiegiturak, S.A.M.P.** erakundearen egiten dugun erabilerari.

Gainera, merkataritzako foru-sozietatea garenez eta betetzeko 30. artikuluan xedatzen duena 2016/679 (EB) Erregelamenduak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra; aurrerantzean, DBEO) eta 31. artikuluan xedatzen duena 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak (aurrerantzean, DBEDBLO), dokumentu honekin argitara ematen dugu gure tratamendu-jardueren erregistroa, non informazio zehatza aurkituko duzun datu pertsonalez egiten dugun tratamendu bakoitzari buruz.

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen ematen ditugun zerbitzuen izaera dela eta, tratamenduaren arduradun eta eragile dihardugula tratatzen ditugu datu pertsonalak. Behean, argitara ematen ditugu tratamendu-jardueri buruz ditugun erregistroak, tratamenduan dugun rola araberako sailkatuta: arduradun (DBEO, 30.1 art.) edo eragile (DBEO, 30.2 art.).

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa

1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna Azpiegiturak, S.A.M.P. merkataritzako foru-sozietatea da, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Foru Sailari atxikia. Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako merkataritza-sozietate forala gara, eta gure helburu nagusia gure kabuz, hirugarren pertsonen edo emakidadun gisa eta bere izenean edo Bizkaiko Foru Aldundiaren kontura, mota guztietako azpiegitura eta ekipamendu obra publikoak proiektatzea, eraikitzea, kontserbatzea eta ustiatzea da.

2. Nor da datuak babesteko ordezkaria?

Datuak Babesteko ordezkariaren eginkizunak, erantzukizunak, estatutua eta ekipoa Bizkaiko Foru Aldundian datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloan eskumena duen unitate organikoko buruzagitzak betetzen ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren sektore publikoko informazioaren segurtasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko politika onartzen duen uztailaren 4ko 81/2023 Foru Dekretuarekin bat etorriz, 2023ko uztailaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 130. Zk.

Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idatzi Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera, posta-helbide honetara: Kale Nagusia, 2, 6.a – 48001 Bilbo.

3. Zeintzuk dira datuak ematean dagozkizun eskubideak?

Datuen babesari buruzko araudiak zenbait eskubide ematen dizkie interesdunei beren datu pertsonalei dagokienez, jarraian aditzera emango dizugunez. Eskubide horiek zuzenean balia daitezke, edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez, eta dohainik.

Zure eskubideak baliatzeko, jar zaitez harremanetan Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearekin, idatzizko jakinarazpen bat bidaliz helbide honetara, NANaren edo antzeko identifikazio-agiri baten fotokopiaz lagundurik:

Kanariar Uharteak 21, 2. solairua,
48015 Bilbo

Zure eskaera jaso ondoren, ebazpen bat emango dugu. Ebazpenarekin ados ez bazaude, aldez aurreko erreklamazioa egin ahal izango duzu datuak babesteko ordezkariaren aurrean (Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala: Kale Nagusia, 2.6.a -48009 Bilbo), eta hark bere ebazpena izapidetuko du Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen barruan, edo Kontrol-agintaritza eskuduneari.

Datuen titularrek eskubide hauek dituzte:

- **Sartzeko eskubidea:** datu pertsonalak tratatzen diren jakiteko eta tratamendu horri buruzko informazio osoa ezagutzeko eskubidea. Konparazio batera: datu pertsonalak, kategoriak, helburuak, hartzaileak, kontserbazio-epea, jatorria, transferentziak eta komunikazioak.
- **Zuzentzeko eskubidea:** zehatzak ez diren datu pertsonalak zuzentzeko eta falta diren datuak osatzeko ahalmena ematen du.
- **Ezerezteko eskubidea:** datu pertsonalak ezabatze ahalmena ematen du kasu hauetan:
 - Datuak legez kontra tratatu badira.
 - Tratamendua edo bilketa eragin zuen helburua desagertu bada.
 - Adostasuna ezeztatu bada (adostasuna datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa denean bakarrik).
 - Tratamenduari aurka egin bazaio.
- **Aurka egiteko eskubidea:** zure datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal diozu, baldin eta botere publikoen erabilera edo tratamenduaren arduradunaren interes legitimoa bada haren legitimazio-oinarria.
- **Mugatzeko eskubidea:** datu pertsonalen tratamendua mugatzea, bi aldaeratan: datuen tratamendua etetea eta datuak kontserbatzea:
 - Tratamendua eteteko eskatzen da:
 - Datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen denean, zehaztasuna egiaztatze epearen barruan.
 - Tratamenduari aurka egiten zaionean, arrazoi pertsonalak azalduta, aldi berean egiaztatzen delarik arduradunak interes publikoaren edo botere publikoen izenean burututako eginkizun batean legitimatuta tratatzen dituela zure datuak, eta zehazten denean arduradunaren tratamendu hori gailentzen dela.
 - Datuak gordetzeko eskatzen da:
 - Tratamendua legez kontrakoa denean eta erabilera mugatzea eskatzen denean, eta ez ezerezte.
 - Pertsonen erreklamazioak egiteko edo defendatzeko datuak behar dituztenean, baina aldi berean arduradunak jadanik behar ez dituztenean datu horiek tratamenduaren helburuetarako.
- **Erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izateko eskubidea:** eskubide honek bermatzen du zure gainean ez dela erabakirik hartuko datu pertsonalen tratamendu hutsean oinarrituta

(profilak egitea barne), baldin eta tratamenduak ondorio juridikoak baditu pertsonarengan. Hala ere, eskubidea ez da aplikatzen kasu hauetan:

- o Erabakia beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo betearazteko.
- o Tratamendua adostasunak legitimatuta badago.

4. Zein kasutan komunikatuko ditugu zure datuak?

Ez dizkiegu zure datuak hirugarrenei komunikatuko, zuri alde aurretik jakinarazi gabe eta behar den legitimazio-oinarria eduki gabe.

Batzuetan, zerbitzu jakin batzuk ematen dizkiguten enpresak kontratatzen ditugu, eta, horretarako, gure ardurapeko datu pertsonalak tratatu behar izaten dituzte. Enpresa horiek in tratamendu-eragileen kontratuak sinatu ditugu, DBEOren eta DBEDBLOren xedapenak betetzen dituztenak. Kontratuon bidez ziurtatzen dugu enpresa horiek kontratatutako zerbitzua emateko soilik tratatzen dituztela erabilgarri dituzten datuak, ez dituztela inoiz erabiltzen baimendu ez dizkiegun helburuetarako eta ez dizkietela datu horiek hirugarren enpresa eta/edo administrazioei lagako. Gainera, eskatzen diegu segurtasun-neurriak ezar ditzatela datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko. Era berean, kontratatuko baditugu, enpresa eta erakundeek bermatu behar digute indarrean dauden datuen babesari buruzko xedapenak betetzen dituztela.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugunez, egoera jakin batzuetan, datuak administrazio publikoei lagatzeko legezko betebeharra dugu.

Kontrakoa adierazi ezean, ez dugu datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

5. Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin.

Halaber, honako segurtasun-neurri hauek aplikatzen ditugu:

- Interesdunari tratamenduaren xehetasunen berri ematen zaio datuak babesteko klausula pertsonalizatuen bidez;
- Interesdunari zer eskubide dituen jakinarazten zaio, datuak babesteko klausula pertsonalizatuen bidez;
- Euskarriak enpresaren barruan eta kanpoan garraiatzen dituzte segurtasun-neurriekin tratamenduaren arduradunak baimendutako langileek;
- Baimenik ez duten pertsonak ezin dute datuetan sartu eskuzko tratamenduan (dokumentuak);
- Baimenik ez duten pertsonak ezin dituzte datuak ikusi tratamendu digitalean (pantailak);
- Dokumentazioa segurtasun-neurriak dituen altzari edo sail batean biltegitratzen da;
- Dokumentuak suntsitzeko protokolo bat dago;
- Euskarri digitalak suntsitzeko protokolo bat dago;
- Identifikazio- eta autentifikazio-prozedura bat dago;
- Segurtasun-kopiak egiteko prozedura bat dago;
- Datuen erabilgarritasuna bermatzeko neurriak daude;
- Datuak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko neurriak daude;
- Segurtasun-neurrien eraginkortasuna egiaztatze, ebaluatze eta baloratzeko prozesuak ezartzen dira.

Tratamendu Jardueren Erregistroa tratamenduaren arduradun gisa, eta informazio gehigarria

Jarraian, Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen, tratamenduaren arduradun garen aldetik, egiten dugun tratamendu-jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatza jasotzen dugu:

1. Bezeroen kudeaketa

1.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Erakundearen bezeroen administrazio-, kontabilitate- eta zerga-kudeaketarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

1.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

1.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b.) eta Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeari aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena;
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.

1.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Ondasun eta zerbitzuen transakzioak.

Datu horien titularrak bezeroak eta hornitzaileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

1.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legeko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Finantza eta aurrezki erakundeei;
- Ogasun eta Finantzetako Foru Sailari eta/edo beste zerga agentzia batzuei.

2. Kontratisten/azpikontratisten kudeaketa

2.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeak kontratatutako eta azpikontratutako enpresekiko kudeaketa administratiboa, operatiboa eta legezko betebeharrak betetzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

2.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

2.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b.) eta Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa;
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena;
- 2/2005 Foru araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.

2.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu horien titularrak kontratatutako eta azpikontratutako enpresetako langileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

2.5. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legezko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Ogasun eta Finantzetako Foru Saila eta/edo beste zerga agentzia batzuei;
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta autonomia erkidegoetako kanpoko beste kontrol organo batzuei;
- Lan istripuen eta lanbide gaixotasunen mutualitateei;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuei (osasuaren zaintza).

3. Langileen eta giza baliabideen kudeaketa

3.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Langileekiko lan-harremana kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

3.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

3.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interesduna alderdi den lan-kontratu eta/edo hitzarmen/akordio bat gauzatzeko (DBEOren 6.1. b) eta Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeari aplikatu dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c).

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa;
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.

3.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna, afiliazio sindikala.

Datu horien titularrak enplegatuak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

3.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legezko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari;
- Ogasun eta Finantzetako Foru Saila eta/edo beste zerga agentzia batzuei;
- Lan istripuen eta lanbide gaixotasunen mutualitateei;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuei (osasunaren zaintza);
- Finantza eta aurrezki erakundeei;
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE);
- Aseguru-artekaritzei;
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari;
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari.

4. *Administrazio Kontseiluaren kudeaketa*

4.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Administrazio-kudeaketarako eta kontseiluko kideei buruzko legezko betebeharren kudeaketarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

4.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

4.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa lege hauek ezartzen dizkiguten legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.) da:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena;
- 1784/1996 Errege Dekretua, uztailaren 19koa, Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.

4.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu horien titularrak Administrazio Kontseiluko kideak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

4.5. *Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?*

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legezko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Merkataritza erregistroari;
- Notariotzei.

5. *Beken eta praktiken kudeaketa*

5.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Erakundeetan praktikak egiten dituzten langileekin lan- eta administrazio-harremanak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

5.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

5.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Datuak tratatzeko legitimazioa da lan-kontratua eta/edo hitzarmen/akordio bat gauzatzea (DBEOren 6.1.b.).

5.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu horien titularrak praktiketako pertsonak eta/edo bekadunak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

5.5. *Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?*

Hitzartutako erakundeei zure datuak jakinaraziko dizkiegu.

6. *Lan-poltsaren kudeaketa*

6.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Hautagaiak hautatzeko prozesuak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

6.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

6.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Datuak tratatzeko legitimazioa da kontratu aurreko neurriak aplikatzea (DBEOren 6.1.b.) eta interesdunaren adostasuna (DBEOren 6. 1.a.). Emandako adostasuna edozein unetan ken dezakezu Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearekin harremanetan jarriz.

6.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak.

Datu horien titularrak hautagaiak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

6.5. *Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?*

Zure datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.

7. *Elkartegien kudeaketa*

7.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeak kudeatzen dituen Elkartegiak Enpresa-Zentroen alokairuaren/espazio-lagapenaren kudeaketa administratiboa eta operatiboa egiteko.

7.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

7.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datuak tratatzeko legitimazioa kontratu bat gauzatzea da (DBEOren 6.1.b.) eta Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko foru diputatuaren martxoaren 5eko 774/2020 Foru Aginduak ezartzen dizkigun legezko betebeharrak betetzea, Azpiegiturak, S.A.M.P. enpresak kudeatzen dituen Elkartegiak enpresa-zentroetan sartzeko Batzordea sortzeari buruzkoa (DBEOren 6.1.c.).

Komunikazio komertzialak bidaltzeari dagokionez, datuak tratatzeko legitimazioa interesdunaren adostasuna izango da (DBEOren 6. 1.a.). Emandako adostasuna edozein unetan kendu ahal izango du Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearekin harremanetan jarriz.

7.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu horien titularrak enpresa erabiltzaileen bezero eta langileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

7.5. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Finantza- eta aurrezki- erakundeei;
- Ogasun eta Finantzetako Foru Sailari eta/edo beste zerga agentzia batzuei;
- Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari, Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailari.

8. Kontaktuen kudeaketa

8.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Harreman instituzionalak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

8.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

8.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratamenduaren arduradunak bilatzen dituen interes legitimoak asetzeko (DBEOren 6.1.f) tratatzen ditugu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.

Datu horien titularrak erakundeetako harremanetarako pertsonak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

8.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

9. Elkartegiak sarbideen kontrola

9.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Elkartegietako sarbideak kontrolatzea, segurtasun-arrazoiengatik tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

9.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Eraikinerako sarbideak kontrolatzeko helburuarekin bildutako datuak behar den epean gordeko dira, bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko.

9.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datuak tratatzeko legitimazioa, baldin eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzen bada (DBEOren 6.1 e).

Datuen tratamendua Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legeak legitimatzen du.

9.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.

Datu horien titularrak Azpiegiturak, S.A.M.P. enpresako langileak eta gure instalazioetara sartzen direnak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

9.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Datuak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei eta organo judizialei komunikatuko zaizkie.

10. Bideozaintza

10.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Segurtasun-arrazoiengatik bideozaintzarako zure datu pertsonalak tratatzen ditugu.

10.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bideozaintzarako bildutako datuak hilabeteko epean gordeko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 22.3 artikulua araberak.

10.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datuak tratatzeko legitimazioa, baldin eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzen bada (DBEOren 6.1 e).

Datuen tratamendua Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legeak legitimatzen du.

10.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.

Datu horien titularrak Azpiegiturak, S.A.M.P. enpresako langileak eta gure instalazioetara sartzen direnak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

10.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Datuak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei eta organo judizialei komunikatuko zaizkie.

11. Etxebizitza esleipendunen kudeaketa

11.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Entitateak saldu eta alokatutako etxebizitza-sustapenen kudeaketa administratiboa (eskaera, esleipena), kontabilitatekoa eta fiskala egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

11.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

11.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b) eta Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeari aplikatu dakizkiokeen legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c).

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena;
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena;
- 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa;
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena;
- 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa;
- 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

11.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak;
- Datu-kategoria bereziak: osasuna, genero-indarkeria.

Datu horien titularrak interesdunak eta/edo haien legeko ordezkariak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

11.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legeko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Finantza- eta aurrezki-erakundeei;
- Notariotzei;
- Herri Lan, Garraio eta Ingurumen Ministerioari.

12. *Salmenta osteko erreklamazioak*

12.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Etxebizitzaren esleipendunen erreklamazioak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

12.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

12.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Zure datu pertsonalak kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b.) eta Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeari aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa;
- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena;
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

12.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.

Datu horien titularrak interesdunak edo haien legeko ordezkariak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

12.5. *Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?*

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legeko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Bizkaiko Foru Aldundiari.
- Aseguru-artekaritzei.

13. *Tanteo eta atzera eskuratzeko eskubideak*

13.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Esleipendunek uko egiteagatik babestutako etxebizitzaren bigarren eskualdatzeen kudeaketa administratiboa, kontabilitatekoa eta fiskala egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

13.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

13.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Zure datu pertsonalak kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b.) eta Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeari aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Tratamendua legitimatzen duen legea 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena da.

13.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak.

Datu horien titularrak interesdunak eta/edo haien legezko ordezkariak eta etxebizitzaren esleipendunak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

13.5. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datuen lagapenak lehen aipatutako legeetan ezarritako legezko betebeharrak betetzeak legitimatzen ditu.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Aseguru-artekaritzei.
- Bizkaiko Foru Aldundiari;
- Notariotzei;
- Prokuradoreei;
- Finantza- eta aurrezki-erakundeei;
- Erregistro publikoari;
- Jabeen erkidegoei.

14. DAS erakundeak (Gizarte Ekintza Saila)

14.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan erabiltzaileen mugimenduak kudeatzeko (altak eta bajak) tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

14.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

14.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b.), legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) eta tratatzen ditugu.

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikokoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1. b), aplika dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c) eta botere publikoak erabiltzeko (DBEOren 6.1.e).

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko;
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa;
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa;
- 11/2005 Foru araua, abenduaren 16koa, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duena.

14.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna.

Datu horien titularrak Azpiegiturak, S.A.M.P. enpresaren hornitzaileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

14.5. *Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?*

Datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.

15. **Espediente juridikoak**

15.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeak irekitako espediente juridikoak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

15.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

15.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Zure datu pertsonalak interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEO 6.1. b.) tratatzen ditugu.

15.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Banku- eta ekonomia-ondarekoak.

Datu horien titularrak pertsona interesduna eta/edo haren legezko ordezkaria, hornitzaileak eta langileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

15.5. *Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?*

Honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Erregistro publikoei;
- Notariotzei;

- Prokuradoreei;
- Epaitegiei.

16. Gutunen sarrerak eta irteerak

16.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen dokumentuen sarrerak eta irteerak erregistratzeko eta haien jarraipena egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

16.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

16.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen aplikazioan aplikatu dakizkiokeen legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.

16.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.

Datu horien titularrak pertsona interesduna edo haren legeko ordezkaria dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

16.5. Zein hartzailerik komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

17. Kontsultak, kexak, iradokizunak eta erreklamazioak kudeatzea

17.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen jarduerari buruz aurkeztutako iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta kontsultak erregistratu, izapidetu eta kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

17.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

17.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen aplikazioan aplikatu dakizkiokeen legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

17.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak.

Datu horien titularrak pertsona interesduna edo haren legezko ordezkaria dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

17.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

18. Compliance: datu pertsonalen tratamendua, salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena)

18.1. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Compliance: Datu pertsonalen tratamendua salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena). Bereziki, etika- eta jokabide-kodea, jazarpen-protokoloa edo indarrean dauden beste protokolo edo araudi batzuk ez betetzeari buruzkoak.

18.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu zure datuak.

Emitza negatiboa izan duten ikerketen kasuan eta salaketa ez onartzearen eta artxibatzearen kasuan, datu pertsonalak gordetzeko epea hiru hilabetekoa izango da.

18.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa;
- Eremu bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

18.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak.
- Enpleguari buruzko xehetasunak.
- Kondena eta arau-hauste penalei buruzkoak.

Datu horien titularrak enpleguak dira, bai salatzailak/kaltetuak, bai lekukoak eta salatuak. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

18.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Salaketa ikertzeko eta kudeatzeko eskumena duen organoari edo agintaritzari.
- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei.
- Organo Judizialei.

19. Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen arau-hausteei eta ez-betetzei buruzko barneko informazio-sistema

19.1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen Administrazio Kontseilua, Administrazio-Organogisa sistema ezartzeko arduraduna izanda.

Funtzioen esleipena: Barneko informazio-sistemaren Organogisa arduraduna, kide anitzeko organogisa Sistema kudeatzearen eta datuak babesteko eskubideen eskaerak kudeatu eta ebaztearen Arduraduna, eta Kontrol Agintaritzaren aurrean segurtasun-arrakalen edota salaketen aurrean alegazioak formulatu.

19.2. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundearen barneko informazio-sistema kudeatzeko, arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larriari edo, hala badagokio, beste arau-urraketen edo jokabide-kodeen ez betetzei buruzko informazioa komunikatzeko eta ikertzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

19.3. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Arau orokorra: datu pertsonalak 3 edo 6 hilabeteko epean tratatzea bideratutako prozeduraren konplexutasunaren arabera, prozedura izapidetzeko eta anonimizazioa edo blokeoaren aplikazioa, beharrezkoak diren eta, hala badagokio, aplikatzen diren segurtasun-neurri teknikoak, konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko.

Hiru hilabeteko epean datuak ezabatzea ikerketa hasten ez bada.

Inola ere ezingo dira datuak gorde hamar urte baino gehiagoko epean.

19.4. Zein da datuak tratatzeko zilegitasun-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.
- Eremu bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

Kategoria bereziko datu pertsonalak: Tratamendua beharrezkoa bada funtsezko interes publiko berezi bati buruzko arrazoiak direla medio, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, proportzionala izan behar du bilatzen den helburuarekiko; datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar du, eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar ditu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko (DBEOren 9.2.g. art.).

19.5. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Hala badagokio, datu-kategoria hauek tratatuko ditugu:

- Anonimotasuna (informazioa komunikatzeko eta kudeatzeko aukera identifikazio pertsonalik gabe) edo, hala badagokio, identifikazio- eta kontaktu-datuak, enpleguaren xehetasunak eta jakinarazitako beste datu pertsonal batzuk edo informatzailearen edo kaltetutako pertsonen ikerketaren ondoriozkoak.
- Datuen kategoria bereziak, modu murriztailean eta behar-beharrezkoak diren kasuetan.

Datu horien titularrak informatzaileak edo kaltetutako pertsonak dira. Datu horiek informatzailearengandik, informatzailea babesteko agintaritzaren independentetik edo beste organo, agintaritzaren edo kanpoko pertsona batzuetatik lortzen ditugu.

19.6. Zein hartzaileari komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Ministerio Fiskala edo Europako Fiskaltza, delituak komunikatzeko.
- Hirugarren pertsonak neurri zuzentzaileak hartzeko edo zehapen- edo zigor-prozedurak izapidetzeko, hala badagokio.
- Erakunde edo Agintaritzaren independente eskuduna, beste erakunde behartu bati buruzko informazioarako.

Tratamendu Jardueren Erregistroa tratamenduaren eragile gisa, eta informazio gehigarria

Jarraian, DBEO 30.2. artikuluko xedapenak betez, informazio zehatza jasotzen dugu Azpiegiturak, S.A.M.P. erakundeak datu pertsonalen tratamenduaren eragile den aldetik egiten duen tratamendu bakoitzari buruz.

1. Egoitzen eta eguneko zentroen erabiltzaileen kudeaketa administratiboa eta asistentziala

1.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Foru Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo) du datu pertsonalak tratamenduaren arduradun gisa tratatzeko ardura.

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko Burutzak (Kale Nagusia, 2, 6.a - 48001 Bilbo) du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

1.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1. b), aplikatu dakizkikeen legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c) eta botere publikoak erabiltzeko (DBEOren 6.1.e).

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;
- 3/2005 Legea, otsailaren 18ko, Umeei eta Nerabeei Arreta eta Babesa emateari buruzkoa
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa;
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa;
- 11/2005 Foru araua, abenduaren 16koa, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duena.

1.3. Zein dira erakunde arduradunen kontura egindako tratamendu-kategoriak?

Tratamendu-kategoriak honako hauek dira:

- Herritarrentzako arreta.
- Tratamendu automatizatuak.

2. Ekonomia Sustatzeko Foru Sailak Elkartegiak eta Industrialdeak Programan emandako dirulaguntzak kudeatzeko lankidetzak

2.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Foru Saileko Ekintzaitza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo) du datu pertsonalak tratamenduaren arduradun gisa tratatzeko ardura.

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko Burutzak (Kale Nagusia, 2, 6.a - 48001 Bilbo) du Datuak Babesteko Ordezkarieren rola.

2.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.) eta botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea (DBEOren 6.1.e) da.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- 5/2005 Foru araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena;
- 25/2019 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Elkartegiak eta Industrialdeak programaren 2019ko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dituena.

2.3. Zein dira erakunde arduradunen kontura egindako tratamendu-kategoriak?

Tratamendu-kategoriak honako hauek dira:

- Herritarrentzako arreta.
- Tratamendu automatizatuak.

3. Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzea sustatzeko dirulaguntzak.

3.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Lurralde Garapena Foru Saileko Lurralde Garapena Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo) du datu pertsonalak tratamenduaren arduradun gisa tratatzeko ardura.

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko Burutzak (Kale Nagusia 25 - 48009 Bilbo) du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

3.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.) eta botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea (DBEOren 6.1.e) da.

Tratamendua legitimatzen duten arauak hauek dira:

- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, eta haren hitzaurreak kontzertu ekonomikoaren 48. artikuluan hori arrazoitzen du;
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, dirulaguntzen erregelamendua onartzen duena;
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 88/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa, zeinaren bidez oinarri arautzaileak eta deialdia onesten baitira 2020. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko dirulaguntzak emateko.

3.3. Zein dira erakunde arduradunen kontura egindako tratamendu-kategoriak?

Tratamendu-kategoriak honako hauek dira:

- Dirulaguntzak.
- Tratamendu automatizatuak.

4. Urbanizazio-gomendioak: jabetza urbanizazioaren kudeaketa administratiboa, kontabilitatekoa eta fiskala

4.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Gomendioa egiten duen Bizkaiko Foru Aldundiko Zuzendaritza Nagusiak (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo) du datu pertsonalak tratamenduaren arduradun gisa tratatzeko ardura.

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko Burutzak (Kale Nagusia, 2, 6.a - 48001 Bilbo) du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

4.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.) eta botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea (DBEOren 6.1.e) da.

Tratamendua legitimatzen duten legeak hauek dira:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea;
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena.

4.3. Zein dira erakunde arduradunen kontura egindako tratamendu-kategoriak?

Tratamendu-kategoriak honako hauek dira:

- Zerbitzu publikoak.
- Tratamendu automatizatuak.